



2018 MAY. 04

TOLOSAKO
UDALA

SARRERA	IRTEERA
zk. 361797	zk.

TOLOSAKO UDALA

2018 API. 27

IRTEERA - ERREGISTROA
ZKA. 2120

Ignacio María Arriola López
Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila
Donostia-San Sebastián kalea 1
Vitoria-Gasteiz

Tolosan, 2018ko apirilaren 25ean

ALEGAZIOA

GAIA: Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde antolamenduaren gidalerroen berrikuspena

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako Sailak Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko 4/1990 Legeak ezarritako izapideekin bat, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuak 2018ko otsailaren 20an emandako Aginduaren bidez hasierako onarpena eman zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde antolamenduaren gidalerroen berrikuspen txostenari. Dokumentuak jendaurreko informazioaren izapidea eta entzunaldiaren izapidea betez, alegazio, ohar eta iradokizunak egiteko epea zabaldu da.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde antolamenduaren gidalerroen berrikuspen txostena azterturik, Tolosako Udalak hainbat ekarpen egin nahi ditu:

Txostenean aipatzen den Aplikatzeko Arauetan, III. Kapitulan, Gomendio mailako gidalerroetan, euskararen arloko gidalerroak aipatzen dira 33. artikuluan (343 or.)

Bigarren gidalerroak hauxe dio:

2. Harremanetarako guneak ahalbidetzea, sare presentzialak indartzea eta eskusibotasuneko eta lurralde-konpartimentazioko guneak saihestea.

Bertan arnaguneak babestea ere gehituko genuke. Txostenean eta baita helburuetan ere egiten zaie erreferentzia arnaguneei, baina beharrezkoa iruditzen zaigu gidalerroetan ere jasotzea. Izan ere, iruditzen zaigu ondo dagoena zaindu egin behar dela, ez dadila atzerapausorik eman, eta urrats berriak ematerakoan prebentiboki aritu behar dela. Lurralde-antolaketek eta hirigintza-planek hizkuntzaren egoeran eragina dute, baina, era berean, tresna eragingarriak izan daitezke hizkuntza biziberritzeko.

Hortaz, horrela jarriko genuke:

2. Arnaguneak babestea eta harremanetarako guneak ahalbidetzea, sare presentzialak indartzea eta eskusibotasuneko eta lurralde-konpartimentazioko guneak saihestea.

Eskerrik asko alde z aurretik,

Adeitasunez.

ALKATEA

Olatz Peon Ormazabal

